

**2.007-KO UZTAILAREN 20-AN EGINDAKO APARTEKO  
BATZARRALDIKO AKTA.-**

" ZUMAIAKO Hirian, bi mila eta zazpiko uztailaren 20-an, arratsaldeko zazpi terdietan, udaletxe honetako Biltzar Aretoan, Udal Plenoa eratu zen aparteko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez izendatutako eguneko aztergaiari jarraituz, eta garaiz eta eraonez deituak izan zirelarik, ondorenean aipatzen diren udal bazkideak etorri ziren:

**PRESIDENTZIA.-**

Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA

**ZINEGOTZIAK.-**

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA

Lide AMILIBIA BERGARETXE

Unai MANZISIDOR ANDONEGI

Manuel ZUBIA ARTABE

Miren Nerea EPELDE AZKUE

Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA

Pilar ETXABE IRIONDO

Cristina FORCADA UNAMUNO

Xabier OLAIZOLA ANTIA

Emiliano CABAÑAS GONZALEZ

**IDAZKARIA.-**

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

**1.- ALKATEAK HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA  
ONDORENGO GAI HAUETAN: GOBERNU BATZORDEKIDEAK, ALKATE  
ORDEAK, BATZORDE INFORMATZAILETAKO BURUAK.**

Bilera eratutzat eman ondoren, alkate jaunak ondorengo Alkate Dekretu hauen berri eman du:

**195/2007 Dekretua: ALKATE ORDEAK:** bigarren Alkate orde **Cristina Forcada Unanue**, EB-B/A talde politikoko zinegotzia **kargutik kentzea** eta izendapen berriak egitea, ondorengo zinegotzientzat:

Lehenengoa **ANDONI ETXANIZ OSA**, EAE-ANV talde politikoko zinegotzia, Udal honetan ordezkari duena.

Bigarrena, **PILAR ETXABE IRIONDO**, EA talde politikoko zinegotzia, Udal honetan ordezkari duena.

Hirugarrena, **NEREA EPELDE AZKUE**, EAE-ANV talde politikoko zinegotzia, Udal honetan ordezkari duena.

Laugarrena, **JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA**, EAE-ANV talde politikoko zinegotzia, Udal honetan ordezkari duena.

**196/2007 Dekretua:GOBERNU BATZORDEKO KIDEEN KARGU UZTEA ETA IZENDAPENA.** Ondorengo zinegotzi hau Gobernu Batzordeko kide kargutik kentzea:

**CRISTINA FORCADA UNANUE**, EB-E/A talde politikoko zinegotzia, Udal honetan ordezkari duena. Eta bere ordezkari, Gobernu Batzordeko kide izendatzea ondorengo zinegotzi hau:

**PILAR ETXABE IRIONDO**, EA talde politikoko zinegotzia, Udal honetan ordezkari duena.

**197/2007 Dekretua: HERRITARREN PARTE HARTZEA, ETORKINAK, BERDINTASUNA ETA GAZTERIA BATZORDE INFORMATZAILEAREN BURU KARGUTIK KENTZEA** **CRISTINA FORCADA UNANUE andrea**, EB-B/A taldeko zinegotzia.

Hitz egiteko txandan EAJko bozeramaileak esan du Zumaian gobernuan egondako denborarik laburrenaren errekorra gainditu dela. Eta ez bakarrik Zumaiako errekorra, beste herrietakoa ere bai. Horrek azalpena beharko lukeela gaineratu du.

Antolaketari buruzko Udalbatzaren ondoren egin zen prentsa aurrekoan jakitera eman zen gobernu EAK eta ANVK osatzen zutela. Baina Udalbatzaren bertan ez zen hori esan. Gaur esan dena azaldu zen.

Alkateak erantzun dio, gertaera horrek agerian uzten duela, ez dela egia EAJk esaten zuen bezala, gobernu osatzeko aurretik pakturik zegoenik eta Azpeitikoekin harremanetan egon zirenik.

Udalbatzaren esan zen EB-B/Ak gobernu taldean parte hartuko zuela. Baina ondorengo azterketa bat eginda erabaki dute ez dutela parte hartuko, alkateak esan du azalpenak beraiek emango dituztela.

Aralarreko bozeramaileak azaldu du, hasieran alkatearen hautagaitzaren alde egin zutela baina ez zeukatela oso garbi gobernuan parte hartuko zuten ala ez. Hobeto pentsatu eta gobernutik kanpo geratzea erabaki zuten.

EAJko bozeramaileak esan du gobernu EAK eta ANVk osatzen dutela eta galdetu du ea nork hartuko duen Herritarren Partaidetzako Batzorde Informatzailearen buru izateko ardura.

Alkateak erantzun dio printzipioz Batzorde horren buru izateko ardura ez dela inoren esku utziko eta bere eskuetan geldituko dela.

## **2.- ZUMAIAKO SAHIESBIDEA N-634 ERREPIDEAREKIN LOTZEKO ERROTONDA EXEKUTATZEKO ZUZENEKO OKUPAZIOA: INDUSTRIAS GAIR, S.L.-K; AURKEZTUTAKO OHARPENA EBATZI, ETA 2007.03.30EKO HASERAKO IZAERAKO AKORDIOA, BEHIN BETIKOTZAT HARTZEA.**

Alkate jaunak errotonda exekutatzeko zuzeneko okupazioaren gaia astearteko Hirigintz Batzordean aztertu zela dio. Josu Agirrezabalaga Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideetako zuzendariaren deia jaso zuen ondoren. Zera azpimarratu ziolarik, Udalak lehen bait lehen jarri behar zituela Diputazioaren eskura Zumaiako sahiesbidea N-634 errepidearekin lotzeko errotonda exekutatzeko lursailak.

Agiria haserako izaeraz martxoan onartu zen eta jendaurreko agerraldia iraganik, aurkezturiko oharpena ebatzi eta espedientea behin betiko izaeraz onartzea dagokio Udal Plenoari.

Alderdiri dagokien hitz txandan EAJ-ko bozemaileak, zera proposatzen du, Hirigintz Batzordeko erizpenaren oinarri juridikoen A) atalaren idazketa, berrikustea, segurtasun juridikoagatik. Non jasotzen den, lursailen disponibilitatea 2007ko urria baino izatea zaila izango dela.

Parrafo horren idazketak espedientearen haserako onarpen akordioa bultzatu zuen arrazonamendua, deslegitimatzen duela, ulertzen du.

EAJ-k egin duen proposamenaren hildotik aipaturiko parrafoaren idazketa Udal zerbitzu teknikoek azter dezatela eskatzen da eta bidezko bada idazketa berrikusi dadila.

EAE-ko zinegotziak, Joseba Josu Azpiazuk, Plenoan oso gutxitan eztabaidatu dela erizpideen oinarri teknikoaren bidezkoatasunari buruz. Eta aurreko kontsiderazio horiek teknikarien lana gutxietsi dezaketela huste du.

EAJ-ko bozemaileak aipamena Hirigintz Batzordean egin zuela adierazten du eta diktamenak bere horretan jarraitzen duela ikustean segurtasun juridikoaren arrazoiagatik besterik gabe planteatu duela.

PSOE-ko bozemaileak EAJ-k diosenarekin bat, ez du huste diktamenaren parrafo baten idazketaren aldaketak teknikoan lana gutxien duenik.

EAE-ko bozemaileak dio berari egoera berdintsu batean egin zuen aipamen baten ondorioz, teknikarien lana gutxien zuela adierazi zitzaioa.

## **HIRIGINTZA BATZORDEAREN IRIZPENA**

### **ZUMAIAKO SAIHESBIDEA N-634 ERREPIDEAREKIN LOTZEKO ERROTONDA EXEKUTATZEKO LURSAILEN ZUZENEKO OKUPAZIOAREN ESPEDIENTEA:**

#### **.- INDUSTRIAS GAIR-EN ALEGAZIOAREN EBAZPENA .- 2007-03-30EKO HASIERAKO ONARPENERAKO UDALBATZAREN ERABAKIA BEHIN BETIKO EGITEA**

### **AURREKARIAK**

.- 2007-03-30eko osoko bilkuran honakoa erabaki zen: Zumaiako saihesbidea N-634 errepidearekin lotzeko errotonda exekutatzeko lursailen zuzeneko okupazioaren espedientea hasierako izaeraz onartzea, eragindako lursail eta jabeen zerrendarekin, sail horien hirigintza-eraikigarritasuna adierazita.

.- Erabaki hau GAO-n 2007-04-07an argitaratu zen eta zuzenean jakinarazi zitzaizen interesdunei.

Epealdiaren barruan alegazio bat jarri zaio zuzeneko okupazioaren espedienteari. 2007-05-10eko data du eta INDUSTRIAS GAIR S.L.k sinatu du.

### **OINARRI JURIDIKOAK**

2/2006 LEGEA, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa, 186,187 eta 188. artikulua.

**Zumaiako saihesbidea N-634 errepidearekin lotzeko errotonda exekutatzeko lursailen zuzeneko okupazioaren espedienteari Eneko Aramburu Barrenetxea jaunak eta Agurte Benito Villa andreak INDUSTRIAS GAIR, S.L.ren izenean jarritako alegazioari buruzko TXOSTENA.**

### **ALEGAZIOAREN EDUKIA:**

- F) Alegaziogileek adierazten dute supozizio honetan ez dagoela behar bezala arazoituta okupaziorako presako deklarazioa.**

- G) Adierazten dute hirigintza-eraikigarritasuna zehaztea Birpartzelazio Proiektura eraman beharra dagoela eta irekitako okupazio-prozeduran ez dela bete behar hori bete.
- H) Ez da egokia prozedura irekitzea urbanizazio-proiektua ez delako behin betiko onartu, eta horrela jokatuta ez da betetzen indarrean dagoen Lurzoruaren Legeko 188 1) artikulua.
- I) Uste dute saihebidetako obrak berehala hasi beharra ez dela nahikoa arrazoi honako okupazio-prozedura irekitzeko.
- J) Azkenik, diote ez dela bidezkoa okupazio-prozedura irekitzea, horrek Nahitaez Desjabetzeko Legearen 52. artikulua eta indarrean dagoen Lurzoruaren Legekoak urratu egiten dituelako.

#### **ARRAZOI JURIDIKOAK:**

- E) Zumaiako saihebidetako N-634 errepidearekin lotzeko errotonda exekutatzeko lursailen okupazio-espeditatearen Memorian adierazten da beharrezkoa dela lursailak aurretiaz lagatzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak sail horiek fisikoki eskura izatea exijitzen zuelako Foru Organoak diseinatutako hasierako ibilbidearen Proiektua aldatu ahal izateko.

Udalak proposatutako irtenbidea ontzat hartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, Aldundiak berak diseinatutakoa baino eragin txikiagoa zuelako, azpiko pasabiderik egin gabe errotondaren mugimendu eta bira guztiak denak maila berean bateratuta.

Aipatutako lursailak okupatzea arrazoituta dago Zumaiako Arau Subsidiarioen 1. Aldaketa puntualako proiektuan, Torreaga eremuan eragiten duen hartan, hain zuzen, Udalak saihebidetaren errotondarako proposatutako ibilbide berria aurreikusita dagoelako agiri horretan.

Hirigintza-kudeaketa garatze prozesuaren barne, kontuan izanik kudeaketa agiriak ( kudeaketa hitzarmena eta Urbanizazio Jardunbide Programa) izapidatze eta onartzeke daudela, nabarmen ikusten da Udala ez dela garaiz iristen lursailak Foru Aldundiaren esku uzteko.

Horri gehitzen badiogu Aldundiak berehala ekin behar diola haiek diseinatutako Proiektuaren arabera obrak egiteari, arrazoituta dago Udalak prozedura irekitzeko hartutako erabakia, bestela ezingo litzatekeelako gauzatu eta helburua ez litzatekeelako beteko.

Beraz, ezin da baietsi alegazioaren 1. puntua.

- F) Irekitako okupazio-espeditateak okupatutako sail bakoitzeko dagokion hirigintza-eraikigarritasuna zehazten du, baina horrek ez du galarazten hartutako lursailtako bakoitzaren behin betiko azalera bere garaian landu, tramitatu eta Udalak behin betiko onartuko duen Birpartzelazio Proiektuan behar bezala finkatzea. Ondorioz, exijitutako zehaztapen hori behar bezala bete da.

- G) Puntu honi dagokionez, txosten honetan bertan 1. puntuan erantzundakoari helduko diogu, alegia, Zumaiako saihesbidea N-634 errepidearekin lotzeko errotonda exekutatzeko lursailak aurretiaz okupatu izana ordenazio-agiriak legitimatzen duela, Zumaiako Planeamenduko Arau Subsidiarioen 1. Aldaketa puntualeko proiektuan, hau da, 12 H.E. Torreaga eremuan. Beraz, zorrotz betetzen da indarrean dagoen Lurzoruaren Legeko 188 1) artikulua ezarritakoa.
- H) Ez luzatzearren, txosten honetako 1. puntuari esandakoari helduko diogu.

## **ONDORIOA**

Azaldutako arrazoiengatik alegazioa oso-osorik ezetsi behar da.

Bozketa eginik, eskubidezko hamahiru zinegotzietatik, batzarrera bertaraturiko hamaika zinegotziren aho batasunean ERABAKI DA:

1.- INDUSTRIAS GAIR S.L.k sinatuta 2007-05-10ean aurkeztutako alegazioa oso-osorik ezestea, azalpenetan agertzen diren arrazoiengatik.

2.- Zumaiako saihesbidea N-634 errepidearekin lotzeko errotonda exekutatzeko lursailen zuzeneko okupazioaren espedientea behin betiko onartzea.

3.- Erabaki hau legeak agintzen duen modura interesdunei eta Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea dagozkion ondorioak izan ditzan.

4.-Alkateari zuzenbidean izan daitekeen modurik zabalenean gaitasuna eman akordio hau eraginkor izan dadin.

Eta beste gairik ez zegoenez, batzarraldia amaitutzat ematen da, gaueko zortzirak eta hogeitamar minutu direnean, eta nik, Idazkari honek, fede ematen dut.

ZUMAIA, 2.007-ko uztailaren 24.

O.E ALKATEA.-

IDAZKARIA.-